

Mozio Arrunta, Santa Maria Orixe Ikastola Eskola Publikoko instalazioei buruzkoa

Eusko Alderdi Jeltzalea/Partido Nacionalista Vasco, DONOSTIAKO Sozialistak/Socialistas Donostiarras eta Partido Popular/Alderdi Popularra udal taldeen bozeramaileek, Miren Azkarate Villar, Ernesto Gasco Gonzalo eta Miren Albistur Garmendia jaun-andreek, Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikulua oinarri, ondorengo MOZIO ARRUNTA aurkezten dute, Santa Maria Orixe Ikastola Eskola Publikoko instalazioen eta hezkuntza egiturei buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

Eusko Alderdi Jeltzalea/Partido Nacionalista Vasco, Donostiako Sozialistak/Socialistas Donostiarrak eta Alderdi Popularra / Partido Popular taldeek, hiriko hezkuntza-eskaintza publikoari eustea helburu, hezkuntza komunitatearen kezka eta eskakizunei erantzuna emango dieten politikak sustatu nahi dituzte.

Lan ildo honetan, Donostiako Udalbatzak mozio bat onartu zuen aho batez 2016ko uztailaren 21ean. Honela dio mozio horrek:

1. Donostiako Udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundiari hertsatuki eskatzen dio, Santa Teresa komentuko zaharraren eraikinaren erabilera lagatzeko borondatea duela adierazi ondoren, Udalarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Santa Maria Orixe Ikastola herri ikastetxeko hezkuntza komunitatearekin elkarlanean jardun dezala, Donostiako Parte Zaharreko ikastetxe horrek dituen premia egiaztatuei aurre egiteko.
2. Donostiako Udalak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Diputazioari egiaztatzeko bideragarri dela Santa Teresa komentuko Kalostra izenez ezagutzen den espazioa erabiltzea Santa Maria Orixe Ikastetxe



publikoaren instalazio eta hezkuntza-zerbitzuen beharrei irtenbidea emateko, eta horretarako bere laguntza eskaintzen dio.

3. Donostiako Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean erdietsitako ituna Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari bidaltzea, alor horretan dituen eskumenekin bat etorritik neurri teknikoak eta aurrekontu arlokoak erabaki ditzaten, Santa Maria Orixe Ikastola Herri Ikastetxeari irtenbide bat eman ahal izateko

Moziok dioena bete zedin udal gobernuak hainbat bilera izan ditu azken urtean zehar eragile eta erakundeekin: ikastetxeko zuzendaritzarekin eta guraso-elkarteko ordezkariekin, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko arduradunekin, azken honena baita hezkuntza-eskubidea bermatzeko ardura.

Bilera horietan argi geratu da, eta hala aitortu dute idatziz bai Batzar Nagusiek eta bai Eusko Jaurlaritzak berak ere, batetik Santa Maria Orixe Herri Ikastetxeak baduela hezkuntza-azpiegiturak handitzeko beharra, matrikularen igoera gradual eta egonkorra kontuan izanik; eta bestetik, beharrezkoa dela Foru Aldundiak moziotan eskatzen zen bideragarritasun plana egitea, oraindik egin gabe baitago.

Garrantzitsua da azpimarratzea Udal honek helburu duela gainerako erakundeekin lankidetzan jardutea, oraingoan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Santa Maria Orixe ikastetxeak behar dituen hezkuntza-azpiegiturak Santa Teresa komentuko instalazioetan kokatzea bideragarri den aztertzeko.

Horregatik guztiagatik, behean sinatzen duten Udal taldeek honako MOZIO ARRUNTA aurkezten dute:

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Aldundiari berariazko azterketa baten bidez egiazta dezala bideragarri den Donostiako Parte Zaharreko Santa Teresa komentuko zati bat erabiltzea Santa Maria Orixeko Ikastola Herri Ikastetxeak dituen hezkuntza-azpiegitura eta zerbitzuen arazoei irtenbidea emango dieten hezkuntza-instalazioak bertan jartzeko, eta horretarako Udalbatzak lankidetzara estua eskaintzen dio.

Donostia, 2017ko abuztuaren 17a

Miren Azkarate Villar
EAJ/PNV

Ernesto Gasco Gonzalo
PSE-EE

Miren Albistur Garmendia
PP